

Madariaga-ko Iulen

Egiari zor



erein

EGIARI ZOR

Cualquier forma de reproducción, distribución, comunicación pública o transformación de esta obra solo puede ser realizada con la autorización de sus titulares, salvo excepción prevista por la ley. Dirijase a CEDRO (Centro Español de Derechos Reprográficos) si necesita fotocopiar o escanear algún fragmento de esta obra (www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. edizioa: 2014 maiatzean

Maketazioa:

Erein

Azalaren diseinua:
Ramuntxo Partarrieu

Azaleko irudia:
Matti-Laurent Partarrieu

Idazkaritza lanak:
Zure Luma

© Madariagako Iulen

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-893-0

L. G.: SS-XXX/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz
T 943 835 008 F 943 130 822
e-mail: itxaropena@itxaropena.net
www.itxaropena.net

EGIARI ZOR

Madariagako Iulen



Eskerrak banan-banan ematea, guztiz ezinezkoa zait, hainbertze eta hainbertze baitira, hala edo hola, lagundu didaten lagunak. Beraz, onar ezazue denek, otoi, lerro hauetatik esker itzel bat bakoitzak lagunduriko aferarengatik, Yvette emaztearekin hasiaz.

Oztopoak jarri dizkidatenak ere izan dira, baina lerro hau bera ere luzeegia da haien aipatzeko eta hor konpon!

AITZINSOLAS GISA

Idatzi beharretan nengoen liburu hau. Eta idatzi behar nuen hil baino lehen.

Printzipioz, holako liburuaren helburua zera da: norbaiten bizialdiaren gain, inguruan gertatu den guzti-guztia erratea, jakinaraztea, komentatzea... Beraz, ene kasuan, ene inguruan gertatu den guztia erratea eta jakinaraztea.

Honetaz, iritzi garrantzitsu baten aldekoa izan naiz betidanik: irakurle orok, gazteek, bereziki, gure historiaz –euskal historiaz, EKIN-ETArena barne, jakina– gertaturiko den-dena jakiteko eskubide oso-oso du, gertaera bera, on edo txar izan, atsegin ala gozogabe, maitagarri zein zakarra.

Erranak erran, agertu zitzaidan oztopo handienetako bat –arras potoloa bera– hauxe izan zait: gure inguruko gertaera horien artean, etxe barnean, hots, ETA erakundearen beraren barruan, hutsak, makurrak edo alukeriak ere izan arren, kontatu eta jakinarazi behar dituguia? Holakorik egin dezakeguia? Komeni dea? Zilegi dea, akaso? Bai ala ez?

Gogoan harturik, gainera, ene liburu honen izenburua, hain zuzen, *Egiari zor dela*... Jakin ezazue, bada, zein den honetaz ene philosophia, ene ikusmoldea. Funtsezkoa deritzait, irakurle hori, zu zeu ere honen jakinaren gainean egotea.

Neuk pentsatzen dut zernahi gertatzen edo gertatu dena, **aipatu beharra dagoela, historiaren parte bat delako; areago: historiographia delako.** Ez dezagun ahantz.

Honetaz, eskandalu deitzen edo kalifikatzen den gaia, **berariaz** azaldu nahi dut hemen, arras garrantzitsua deritzaidalako. Ttipi-ttipidanik, zeraz ohartu nintzen izugarrikeriaren bat jazotzerakoan (familiarian izan, edo armadan, eliza katolikoan, epaileen edo politikarien artean, alderdi politiko edo erakunde baten barruan, eta abar luze bat), arduradun gehienen joera zera zela: **ikaragarrikeria ezkutatzea, edo isiltzea, edo gezurretan ibiltzea, egia edo gertaera mozorrotzea, e.a.**

Nik neuk ez nuen, neurez, jokaera hori maite, ez-eta onartzen ere. Beti nintzen horren kontra kokatzen. Bistan da, adin hartan, nehork ez zidan jaramonik egiten; espainiarrek erraten duten bezala: *Un cero a la izquierda*, bertzerik ez nintzen-eta. Hazi ahala, baina, egia mozorrozeak nazka eragiten jarraitu du ene baitan.

Halaxe zioten: ohartzen zarea (edo haiza) nolako eskandalua den, edo izan daitekeen, aipatzen edo jakinarazten baldin badugu izugarrikeria hori? Erran nahi baita, irakurle estimatu hori, jende gehienaren arabera, pentsamolde hori jarraituz, LARRIAGO dela –edota daitekeela– ikaragarrikeria edo alukeria jendearen aitzinean, edo mass mediatan salatzea, **eskandalua bera egitea, pentsatzea eta gauzatzea baino**. Berez doa nerau ez nentorrela eta ez natorrela bat pentsamolde eta jokamolde super-hypokrita horrekin.

Ni neu ez nago hemen eskandalurik egiteko, ez eta ez egiteko ere. Ene zeregina, ene egin-beharra, lan honetan, ene testigantza ematea eta uztea da, zintzoki eta prestuki, dagozen gizakiei eta etorriko diren gizaldiei. *Que cada palo aguante su vela*.

Honetaz bururatzeko, halako jokamoldeak eta portaerak irmoki eta sendoki salatuz gizarte ororen aitzinean,

espero dezagun bakanago gertatuko direla. Edozelan ere, ez da ene aldetik honetaz neholako mendekurik edo mendekuzaletasunik. Baina ez naiz, halaber, kikiltzen holakorik argi eta nahasterik gabe salatzeko. Orrialde hauetan ageriarazten ditudan makurrak eta alukeriak, jakinarazten ditut, bereziki, batez ere eta oroz gain, sekula santan errepika ez daitezen gure herrian. Zeren-eta izigarrizko kaltea egiten baitiote. Bertzerik ez.

Bai, barka, bada bertzerik. Liburuaren egituraz aipatu nahi dizuet, apur batez.

Irakurleak, liburua hasi eta berehala, zera erreparatuko du: ene ahaide hurkoez, ene arbaso hurbilez (aita, aittitte, birraittitte) aipatzen ditudala –eta nahiko, gainera–. Zergatik obratzen dudan horrela? Hona hemen ene erantzuna. Ez baldin baditut ene aitzineko hur-ahaideak aurkezten, ez litzateke –ene ustez– geroa ondo ulertzen ahalko. Bertze hitzez errana, guttieneko zerbait jakin behar dugula zer-nolakoak ziren aita, aittitte eta birraittitte; ez baita guztiz entelegatzen ahal geroa, burasoak eta zenbait arbaso eta heien inguruabarrak ez baldin baditugu aipatzen. Eta ene haurtzaroaz bertze hainbertze erran dezaket.

Ez ditut, jakina, ene arbaso-hurak erakusten eneak direlako, edota dirdiratsuak direlako (izatekotan). Zerbaiti ekin zioten gure gizartearen alde eta, egia da, kontent naiz horregatik. Bertzerik gabe.

Sar-hitz honi amaiera eman aitzin, zilegi bekit, irakurlearen arretari berriro deitzea, lantxo honen bizkar-hezurra edo hari kudeatzailea zein den oroitarazteko, haren irakurketa errazago izan dadin.

ETAren sortzaile gehienen hasierako kezka nagusia, hauxe izan zitzaigun: “Zerbait egin behar dugu”. Erran

nahi baita, joan zen mendean, 1950 eta ondoko urteetan, gure euskal gizartean hondamendi osoa bertzerik ez genuela ikusten: 1936-1937ko gerla erabat galdua, euskara –gure herri-hizkuntza– hilzorian, herri-independentzia guztiz desagina, eta abar hondagarri luze-luze bat. Eta, berez doa, ez genekien nondik has hainbertze hondamen konpontzen. Zinez, etsigarria zen. Munduko uholde unibertsala bezalako zerbait (hain zuzen ere, aztarna oparo aurkitu omen dute arkeologoek Mesopotamia izenezko eremuan, Tigris eta Eufrates ibaien artean dagoena, alegia. Hitz batez oraingo Irak herrian), edo New Orleansen gisa, Ipar Ameriketan, Katrina izeneko ekaitz erraldoia handik iragan ondotik.

Berriz gure herrira etorririk, hortik abiatu zen gure errana: “Zerbait egin behar dugu”. Bertze modu batez azaldurik, jakin bai genekien gure inguruko hondamendi hura, honela edo horrela konpondu behar zela. Baina zelan, eta nola? Nondik has? Hori adieraztea gura genuen gure leloa erratean.

Geroago, gure hastapena aurrera zihoala (EKIN-ETA sortuz), burruka armatuaren arazoa aurkeztu zitzaigun. Honetaz, soil-soilik pare bat xehetasun, burruka armatua zergatik eta zertarako sortu genuen galderei erantzuteko. Lehenik, gure burua, Euskal Herriarena, defendatzeko, etsaiaren (edo etsaien) erasoaren aurka. Bada, honetaz gain, bigarren arrazoi bat: herriaren duintasuna lortzea, gure herriari hain eskas zuen adorea lortzeko eta emateko, alegia.

Dakigunez, baina, gure delako burruka armatua, munduko burruka guztiak bezalaxe, egun batez amaitu ere da egingen. Maiz, munduko gertaeretan eta arazoetan jazoten den legez, errazago da izaten prozesu bat hastea, amaiera ematea

baino. Are gehiago kiribil bortitzak hartu gaituelarik, ETAREN zein Euskal Herriaren kasuan gertatu den bezala.

1980ko hamarkadaz gero hasi nintzen ni neu amaiera horren alde egiten. Ene iduriko, hein batetik goiti, armen hotsek on baino kalte gehiago eragiten baitzioten gure herriaren askapenari. Hori azaltzea eta aldarrikatzea zinez zaila izan zait; arras zakarra, askotan. Bakar-bakarrik nengo. ETAK ez zidan ulertu. Eta gure alderdi politikoak ere ez. Benetako haustura izan zen gure artean. Hain zen sakona, ezen, oraindik ere, euskal aberkide zonbaitek etsaitzat bainaukate.

Urte anitz behar izan dugu, azkenean, ene lehen ideia horren alde, ezkerreko euskal munduan heltzeko eta sakontzeko: lehenik, “etxe barnean” eta gero etxetik kanpo, jendearen aurrean, harik-eta, egun batez, ene ideiak Arnaldo Otegia-eta bereganatu zuten arte. Ez dut honetaz gauza handirik erranen, ez bada garesti samar ordaindu behar izan dudala. Bidesaria garesti ote?

Laburbiltzeko, autobiographia honen orrialdeak denboraren hariari segi doaz hein handi batez, haurtzarotik hasiz, hurbilago diren garaietaraino. Azken urteotako gertakariak komentatuz eman nahiko nioke amaiera liburuari. (Europa+populuaren nahiaren arabera independentzia).

Ikusiko duzue, ene bizitza etengabeko burruka izan da. Ene harrizka utzi nahi izan diot egiaren aldeko burrukari, liburu hau gauzatuz. Bizi luzea opa diot. Hondar mokorraren gisa ikusten dut. Denboraren haizeak eraman dezala ahal bezain urrun. Euskal Herri maite honi ahal bezainbat eman diot, ongi edo gaizki. Hosto hauek dira ene azkeneko emaitzak. Har ditzala. Ez nuke plazer handia gorik.

LEHEN ZATIA

Madariaga-ko

1932

NICOLAS, RAMON ETA NICOLAS

Nor garen ezagutzeko, nondik heldu garen jakin behar omen da. Nik hori bera egin nahiko nuke hemen, bertze edozein gauza hasi baino lehen. Ikusiko dugunez, biziak bere bitxikeriak baditu, baina erroak eta lurra haztatuz ere desegiten dira zuhaitzeko adarren korapiloak.

Ni hobeki ezagutzeko eta gure herriaren historian kokatzeko, gauzeak bere testuinguruan josi nahiko nituzke. Nolako ingurumenean hazi naizen, hezi nauten –edo ez, bihurrikerietan ere trebe bainintzen!–. Gure arbasoek zer egin duten munduan egon diren bitartean, eta zer nolako eragina ukan duten ene baitan: aita, aittitte, eta birraittitte; Nicolas, Ramon eta Nicolas, hurrenez hurren. Hiru pertsona horiek argira ekarriko ditut orain, ene barreneko zati baten gainetik estalkia kenduz.

Nicolas, birraittitte

Madariaga eta Elias-eko Nicolas, gure birraittitte aurkeztea da, beraz, lehen urratsa. Ametzaga-ko Jesusa bere emaztearekin denda bat zuten, Bilboko Gurutze plaza edo enparatzako kantoian, gaur egungo Ethnografia Erakustokiko ia parean. Eraikineko etxabeko sabaian, “J.A.” hizkiak tindaturik aurkituak izan ziren: Ametzagako Jesusa gure birramamaren ezaugarriak. Maleruski, informazio guti dut

andre horretaz, baina jite handiko pertsona omen zen. Hasteko, bikotearen denda garrantzitsua eta famatua omen zen, garaian.

Baina gure birraititte ez zen soilik merkataria, politikan ere engaiatua zen. Espainiako Alderdi Errepublikazale Federala alderdi politikoko kidea zen. Nicolas errepublikazale eta federazioaren aldekoa zela agertzen da hemen.

Bilboko Herriko Etxeko hautetsia izan zen, 1883an, liberal batekin aurkeztu ondoan. Zortzi urte berantago ere bai, funtsean, 1891n. Hor, aldiz, errepublikazale koalizio batekin izan zen.

Dena den, gure birraititteren obrarik ikusgarriena *El Sitioko* elkartean eta eraikuntzan parte hartzea izan zen. Gaur egun, Bilboko liburutegi garrantzitsuena da, Arriaga antzokiko ondo-ondoan dagoena, Bidebarrieta karrikan.

Berez, *El Sitio* elkarte bat zen. Bigarren Gerla Karlista itzali eta bi urteren buruan, 1878 inguruan, Bilbo hiriko liberalek eta karlistek elkarrekin sortu zuten elkarte hori, bakearen izenean. Gerla bezalako itsuskeriarik ez erreprekatzeko, alegia.

Nicolasen semea, Madariagako Ramon (1868-1940), gure aititte zena, elkarteko lehendakaria izanen zen Lehen Mundu Gerla garaian (1914-1918). Ene iduriko, Ramon gure familiako pertsonaiarik garrantzitsuena da. Ikuspegi politiko eta sozialetik begiraturaz, segur handiena dela. Segur ere bai bere aita-amek, eta gure birraitittek, partikulazki, moldatua izan dela Ramon. Ordura arte, gure familian, merkatariak izan ziren, belaunaldiz belaunaldi. Baina Ramon abokatu egin zen. Edo egin zuten. Ez baitakit hitz zuzena zein legokeen, gure birraitititez argibide

guti baitut, zoritxarrez. Hartaz gehiago jakinez, segur naiz Ramonen ibilbidea keinu batez konprenituko genukeela. Hala ere, ene pistak baditut.

Ramon, aittitte

Madariaga eta Azkuenagako Ramon 1868ko irailaren 19an jaio zen. Merkatarien haurra, burgeseria ertainaren mundukoa. Eta seme bakarra: hori da ene lehen pista. Haur bakarra duzularik, ez diozu ahal duzuna ematen, duzun guztia ematen diozu. Horregatik iruditzen zait Nicolasek eta Jesusak sekulako heziketa eman ziotela Ramon semeari. Sekulakoa diot, aldi berean heziketa aberatsa baitzen intelektualki errana, bai eta, garai hartako, aurrerakoi eta berria. Ikasketak ere molde berezian egin zituen. Erdiko hezkuntza Bilboko Institutuan bete zuen, geroago Nicolas gure aitak berak ere eginen zuen bezalaxe. Harritzekoa bada hor: garaian, Bilboko burgeseriako familiek eskola fededunetara bideratzen baitzituzten beren haurrak. Baina Ramon eskola laikoan ezarri zuten, haren aitaren “jentilen” pentsamoldearekin bat eginez...

Bertzalde, Madrilen zuzenbide lizentzia atera zuen, 1890ean. Garai hartan, Euskal Herrian ez zuten unibertsitate propiorik, naski, arrazoi politikoengatik. Hor, deus harrigarririk. Baina Ramonek ingelesa eta frantsesa ikasiak zituen, ederki menperatzen ere bai, eta hori bai bitxigarrigoa zela garai hartan. Horretaz gain, zuzenbide karrerara osoa berriz zuen egin, hiru urtez, Londonen, *School of Economics* delakoan. Abokatu kolegio edo syndikatu moduan, *Middle Temple* abokatu elkarteko kide izan zen, *barrister-at-law* gisa. Garai berean ere ikasturte bat zuen

obratu Italian, Torinoko unibertsitatean, Cesare Lombroso eta Raffaele Garofalo irakasle ospetsuekin. Bereziki lehena: mediku militarra zen hau, antropologoa ere bai, eta biziki adiskidetu zen gure aittitterekin. Lombroso *criminale nato* bere teoriiaz arras amorratua bilakatu zen. Haren ustez, zenbait jende delinkuente sortzen zen, kriminal, alegia. Hain zuzen ere, gure aittitte, teoria horren arabera, aztertzen eta bideratzen aritu zen –Lombrosorekin batera–, Bilboko “Gorria” (*El Rojo* gaztelerez) haur delinkuente ezagutuaz.

Alta, Ramonen sail nagusia ez zen zigor zuzenbidea, nahiz eta hori zenbaitek sinistu. Itsas zuzenbidea zen bere arloa, eta itsasontzi asurantzak. Hego Euskal Herriko, Galiziako eta Espainia Iparralde osoko kostaldeko *Lloyd*'seko ordezkaria zen. Bilboko Xendra (*Sendeya*, gaztelaniaz) karrrikako zazpigarrenean zen haren bulegoa, hirugarren solairuan. Gorago, laugarren eta bosgarren estaietan zuen bizilekua, sendiarekin batera.

1895ean ezkondu zen, Astigarraga eta Ametzagako Cruz anderearekin, “Batxi de Astigarraga” itsas elkarteko buruaren alabaren batekin, gure amama izanen zena. Inportantea zen Astigarraga itsasontzi enpresa garai hartan.

Urte beteko ezkontza-bidaia egin zuten, European zehar, Erroma, Heidelberg, Stockholm... bezalako hirietan luzaz geldituz. Hor ere, heziketa berezi haren ondorioak sendi dira, ene iduriko: munduko leku nabariak, hizkuntzak, eta kulturak ezagutzea. Zabala eta irekia izatea. Horretan ere da gure aittitteren hezkuntzaren berezitasuna.

Hala ere, Ramonek bere biziko urrezko orrialdeak politika arloan idatzi zituen. Gauza batez segur naiz, hori bai: Nicolas bere aitarengandik bi gauza ukanak zituela,

jarauntsian. Lehen aipatu dugun errepublikazaletasuna eta federazioaren aldekoa izatea. Ramon ezkerreko errepublikarra zen. Bere eredia Katalunian kokatzen zen: Francisco Pi y Margall politikari eta intelektualarengan zuen iparra. Kataluniar unibertsitate munduan, abokatuen artean, Barzelonan zein bertze lekuetan ospetsua zen, eta bere inguruan eragin handia ukan zuena, gure aittitterengan bezala.

Ramon herrialdeko diputatutzat hautatua izan zen 1911n. Erran nahi baita Bizkaia ordezkatzeko zuela Madrildo Parlamentuan. Baina 1930. urtetik goiti bertze hein bateko urratsak egin zituen. Lehenik, *Frente* astekarian parte hartuz. Aittitterekin batera, Ulazia Somonte, Toribio Etxebarria, eta Artzadun ziren. Heien leloa *República, democracia y fueros* zen. Zorigaitzez, denborako giro kulturala erabat eralduna zen orduan.

Horrezaz gain, Eusko Ikaskuntza elkarte kultural eta politikoan ere azkarki inplikatu zen. Eta beharrik. 1929an, edo 1930ean menturaz, elkarte horrek, Ramonen esku utzi zuen geroan sekulako inportantzia izanzen zuen gauza bat: Hego Euskal Herriko autonomia estatutuaren asmoa, edo aitzin-proiektua idazten hastea. Horren artetik, 1930eko agorrileko 17ko Donostiako Ituna bere bulegoan, Xendran (erdarazko *Sendejatzat* ezagunago), idatzia izan zela ere jakinarazi nahi dut. Baina estatutuaren aferari bertze abiadura bat ematea deliberatu zuten. Ramonek eta bere inguruko lagunek delako zirriborro hura dezente aitzinatua zuten. Zorionez. Zeren eta gure herriak aldi ederra irabazi baitzuen. Estatutu horren lerro gehienak gure aittittek idatziak zituen.

Bertzalde, sekulako saila eramane zuen Hego Euskal Herri osoko Herriko Etxeetan zein Diputazioetan (Kontseilu

Nagusia), estatutuaren aldeko atxikimenduak bilatzeko. Jose Antonio de Agirrek berak *Entre la libertad y la revolución* bere liburuan azpimarratu izan du Ramonen lana¹.

1931n, Jon ene anaia sortu zelarik, Ramon Bilboko zinegotzi hautatua izan zen. Kargu hori 1936. urtea arte bete zuen. Bere lehen lan garrantzitsua 1931n bertan bete zuen. Auzapez guztiekin, ezkerrekoak edo eskuinekoak izan, elkarrizketak ukan zituen Hego Euskal Herriko lau diputazioetako bulegoetan, helburu bakarrak: denen artean nolabaiteko politika bateraturen molde bat atzeman nahiz. Abenduaren 15ean egin zen bilkura, eta batzorde bat sortu zuten, auzapezez osaturik. Ramon bera ere izendatua izan zen Bizkaiko gestoraren, hau da, bulego edo batzorde kudeatzailearen izenean. Orduan, Kultura saileko lehendakari zen. Hor ere, Euskal Herriaren alde, edo autonomia estatutu horren alde zuen fedea ageri da. J.A. Agirrek ere hori goretsi zuen, *Entre la libertad y la revolución* liburuan beti².

¹ 182. orrialdean: “Este venturoso cambio de actitud de las Comisiones Gestoras se debía principalmente al impulso energético de un hombre, D. Ramón de Madariaga, entusiasta autonomista y viejo republicano vasco. Su voluntad puesta al servicio de la causa autonómica le inclinó a aceptar un puesto en la Gestora gubernativa de Vizcaya sin otra mira que la de conseguir que el Estatuto Vasco llegara a buen término, mediante su aprobación. El país sabrá siempre agradecer profundamente a quien como el Sr. Madariaga le causó inestimables servicios, siendo él quien con su espíritu tolerante facilitó más tarde fórmulas de inteligencia dentro de un programa común para los que hasta entonces discrepaban”.

² 197. orrialdean: “Recuerdo, por ejemplo, aquellas reuniones en el despacho del Sr. Madariaga, en las que, día tras día, se estudiaba la fórmula que en materia social había de establecerse en el Estatuto, cuidando con exquisito esmero de compaginar las doctrinas sociales cristianas con el espíritu de justa y necesaria reivindicación social que late en algunas de las doctrinas marxistas. Allí, con los textos respectivos en la mano y con recta intención en el corazón, iban aquellos hombres (Madariaga, Leizaola, Horn, Basterrechea) redactando con sumo cuidado y maestría los postulados que más tarde habrían de ser aceptados por organizaciones de doctrinas opuestas y en muchos puntos irreductibles”.

1932an, Ramonek *El Derecho Foral de Vizcaya* argitaratu zuen. Hitzaldi hori Iruñean eman zuen, ni amaren sabelean nintzela, Eusko Ikaskuntzak elkartearen udako unibertsitatean. Bertze hitzaldi garrantzitsu bat egin zuen 1933an, Gasteizen, auzapezen batzar batean. Bilkura hartan estatutuaren aldeko batzordea osatzea adostu zuten hemezortzi lagunen artean. Ramon hautatua izan zen Bizkaiko bulego kudeatzailearen izenean, batzorde horren lehendakaria, gainera.

1936an, gerla hasi zelarik, Madrilen euskal estatutu baten alde boza eman zuten. Biharamunean, urriaren 7an, alegia, Jose Antonio Agirrek 1936an lehen Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzarako zin egin zuen, Gernikan. Bitxikeria polita gertatu zen, orduan. Gure aittitterekin batera zen jende horri iruditu zitzaion hautagai bakarra aurkeztea ez zela nahikoa izanen, edo ez hain demokrati-koa... Hots, bertze hautagai batek bederen presentatu behar zuela. Ramoni galdegin zioten bertze hautagai hura bera izatea, eta hark baietz erran! Ehun bat boz lortu zituen, arras symbolikoak, eta Agirrek, aldiz, kasik hirurehun mila. Beti irriz egoten naiz anekdota horri pentsatzean...

Ondotik, ordea, denek ezagutzen dugun aro beltza etorri zitzaigun. Gerla hasia, eta ongi hasia zelarik, Hego Euskal Herriko hainbat familia bezala, gurea ere Iparraldera errefuxiatzera joan zen. Aittitte eta amama Angelun eta Biarritzen egon ziren, bolada baterako. Baina Ramon Tarbera joan zen ondotik, Juan bere semearengana, bera bakarrik. Izan ere, Cruz, gure amama, eritu eta zendu egin baitzen Angelun. Hark ere, Ramonen gisan, hainbat gauza pairatu behar izan zuen, gaixoak. Lehenik, gure aittittek

auzi txit garrantzitsua galdu zuen. Orduan, Sotako Ramonen alde lanean aritu zen, abokatu gisa, Aznarren kontra. Gerla giro hartan, bistan dena, auzi ekonomikoa baino, erabat politikoa izan zela. Sotatarrek galdu zuten 1939an. Horrez gain, Iparraldeko abentura hori zaila izan zen Ramon eta Cruzendako. Bizkaiko ontasunak oro bahitu zizkieten, Espainiako armadak Bilbo bereganatu bezain laster. Eta hori guti balitz, Francok pezeta ez konbertigarria egin zuelarik, gure aittitte eta amamari Londonen eta Parisen zuten diru guztia paper “bustia” bilakatu zitzaien. Oraintsu aipatu bezala, 1939ko apirilean hil zitzaigun Cruz amama, eta kalamitate horiek denak ez zirela heriotza haren arrotzak izan erranen nuke, duda izpirik gabe.

Bigarren Mundu Gerla hasi zen urte bereko irailean. Juan bere semeak (haren besoetakoa izana naiz ni) eta haren emazteak, Tere izekoak (J.A. Agirrerren arrebak), Tarben errefuxiatuak zirela, Ramon alargun berriari erran zioten Biarritz uztea, beraiekin Tarbera bizitzera joateko. Hori zuen egin, baina fite aspertu ere... Aittittek ez baitzuen harrezkero Biarritzeko giroa atzeman han. Gainera, hango bere koadrilak (Benigno Belaustegigoitia, J.L. Azaola, R. Sota aita-semeak, J.L. Landaburu...) sekulako hutsa egiten zion, aspaldiko lagunak baitzituen. Hori aise ulertzekoa da. Egun batez, ezinegona loturik, gure aittittek tren hartu zuen Biarritzera buruz. Baina zoriona lllabur-llabur suertatu zitzaion, ohartu baitzen frantziar agintariak, poliziak oro errefuxiatu guztiak atxilotzen ari zirela nonahi, Gurs bezalako bilguneetara barneratzeko. Tarbetik berrogeita hamar bat kilometrotara baizik ez zen leku madarikatu hura, funtsean. Hartaz ontsa oharturik, Ramonek itzuli-erdia egin zuen, eta Tarbera zihoan bertze tren bat

hartu zuen, segituan. Gauzeak ez ziren, ordea, hobetuz joan. Aittittek eta Juan osabak, gainerateko errefuxiatuek bezala, Alemania nazi ikaragarria beti eta hurbilago ikusten zuten.

Ramon-en bi alabeak, Jesusa eta Cruz, Bizkaian geratuak ziren. Lehen Neguri-Algortako etxean; bigarrena, Bilbon. Haiek aittitteri idatzi zioten zera erranez, menturaz ez ote zen hobe izanen berriz Iparraldetik Bizkaira itzultzea. Naski, kasu eginez, edozein lekutan ibili gabe, ikusia izan gabe, Neguri-Algortako bere etxean, Ereaga al-dapa behean, bizitzen ahalko zela uste zuten. Behar zen moduan, arreta guztiarekin egonen zela, hori bai. 1940ko martxoan haren bila joan ziren sasi mugara eta klandestinioki ekarri zuten Neguriko bere txaletera. Han ongi zen, familia artean, artaturik. Zoritxarrez, delako ezinegon hark gaina hartu zion berriz. Ez zen egun osoa etxe barnean egoten ahal, eta bere baratze eta lilitegi ederrera ateratzen zen, ibilaldi luzeak eginez. “Marqués de Malasaña” deitzen zioten gizon bat bazen auzoan, ordea. Egiazki nola zuen izena ez dakit, baina izengoiti hori ez zela kasualitatea erran dezaket. Alu hark gure aittitte ikusi eta salatu zuen. Guardia Zibilak atxilotu eta Bilboko Karmelon preso sartu zuten. Han zazpi, zortzi hilabetez egon zen, etxean zaindurik egoteko agindu zioten arte. Gaizki atera zen kartzelatik, halatan non zenbait egunetara, bihotzeko bat ukan baitzuen. Algortako bere txaletean hil zen, 1940ko abenduaren 27an.

Hil bai, baina geroko haziak erein gabe ez zen mundutik joan. Lehenago aipatu dudan zabaltasun hura, mundua konprenitzeko sena, gure birraittitteren jarauntsi famatu hura, beren haurrengan utzi zuen, sakonki sakaturik.

Ramonek, bere aitaren omenez, Nicolas izena ezarri zion bere seme zaharrenari; gure aita izanen zenari, alegia.

Eni, Nicolas gure aita aurkeztea biziki inportanta zait. Gizon ona, leiala, eta isila zen. Nik pertsona horrekin egunero bizi izateko zoriona ukan dut. Ez dut sekula berze norbaitengandik hainbertze ikasi. Prediku handirik ez zuen, ordea, baina anitz erakusten zuen. Oharkabea, erran nezake. Bere inguruko guztiak hunkitzen zituen. Ramon, gure aittite, seme bakarra zen ez bezala, Nicolas, gure aita, sei anai-arreben arteko zaharrena izan zen. Eta horrek bere izaeran, bizi osoan eragina izan duela segur naiz ni.

Nicolas, aita

Madariaga eta Astigarragako Nicolas 1896ko ekainaren 20an sortu zen, Bilbon. Oraindik erran dezagun: Ramon, bere aita bezala, abokatu izanen zen. Idatzia zen. Bokazioari esker? Ez baitezpada. Garai haietan, semearen karrera aitak deliberatu ohi zuen. Gisa horretan, Ramonek bere lau semeen karrerak zituen hautatu: Nicolas abokatu, Juan arkitekto, Ramon osagile, eta Pedro –Periko deitzen genuena guk– ingeniari. Garaian izan zitekeen eskola hoberenetan egin zituzten ikasketak: Nicolasek Madrilen eta Cambridgen, Juanek eta Ramonek Madrilen, eta Perikok Liegeko (Belgikan) Gramme Institutuan. Haien aitak manaturik izan zen. Denboran, hala zen. Gainera, gure aittitteren jite azkarra ezaguturik, hobe ezetz ez erranik! Baina ez zait iruditzen lau semeei ezer ukatzea burutik pasatu zitzaienik. Eta alabeak? Garaian, ez zuten karrera ederez pentsatzen ahal ere. Menturatzen naiz hori erratera

baina orduan, ezkontzeko eta, egun batez, ama izateko prestatzen ziren neskak. Gaur harrigarria zaiguna lehen ez zen eztabaidatzen ere. Zorionez, gauzeak aldatuz joan di-rela erakutsi digu historiak.

Nicolas, gure aitaren ibilbidera berriz itzultzeko, ikasketak gogotik egin zituela erran dezaket. Bazitekeen, has-tapenean, aitak poxi bat behartua zela, baina iruditzen zait karrera gutika-gutika barneratuz eta onartuz joan zela. Hasteko, biziki langilea zen, bere ikasle-idazkiak eta zen-bait kaiera ere bai ikusi baititut. Bere ingelesa ere zoraga-rria zen: Xendrako paperetan eta Cambridgen harrapatu bere arrastoez, behintzat, hala diote. Artetik errateko, arras futbolzalea zen, Athletic-zalea, eta Ingalaterrako fut-bol partidetako kronikak Bilboko aldizkari batendako idazten zituen. Ikasketen ondotik, bere aitaren kabinetean hasi zen lanean, Bilbon, eta pentsatzen dut harendako ohore handia izan zela hori. Ramon aita hiltzerakoan, *Lloyd's* konpainiako agentea bilakatu zen, aitaren jaraun-tsian. Horrezaz gain, abokatu gehienek bezala egiten zuen, hots: zibila, penala, eta merkataritza poxi bat.

Gipuzkoako Gregoria Lasa anderea izan zen bere lehen emaztea, eta elkarrekin Nikola semea –gure anaia zaha-rrena– ukan zuten, gure birraittitteri omenez ezarritako izena, euskaldundurik. Baina bigarren haurra erditzerakoan hil zen Gregoria, iaio berria zen alabañoarekin batera. Zo-rionez –gurendako– aitak Esther Agirre ezagutu zuen, eta hau bere bigarren emaztea bilakatu zen. 1930. urtean ez-kondu ziren gure aita-amak. Amodioz. Bi familien arteko konponketa ez zela segur naiz, gure ama zenak beti konta-tzen baitzuen bi amorante bazituela, eta Nicolas hautatu zuela berak, haren erranetan “zintzoena eta hoberena” zelako,

naski. Alta, gurasoek ez zuten biek izaera bera! Gure aita irekia zen bezain hetsia zen ama, katolikotasuna zela eta, batez ere sexualitatearen arloan. Ama serora frantsesetan ibilia zen eskolan, delako Durangoko *Notre Dame de Nevers* ikastegian. Gure aitari bizitza trabatu ziola behin baino gehiagotan deritzait! Baina gure aitak ez zuen sekulan deus aipatu hortaz, eta gurekin zein bere emaztearekin etxean egotea maite zuen.

Nicolasen eta Estherren amodioak zazpi haur eman zituen: Ion, ni neu, Esther, Maitena, Itziar, Gurutzne eta Aitor. Lehen lauak Euskal Herrian iaioak; azkenak, berriz, Txilen, bizitzaren ur handiek hala deliberaturik.

– 2 –

GERLA-UMEA

Ingurumen horretan sortu nintzen ni, Madariaga eta Agirreko Iulen, 1932ko urriaren 11n, Bilboko Berastegi kaleko bosgarrenean, bigarren solairuan, azpiko kantoian Iruñea kafetegia delarik: zehatzago, ezin! Sortetxea bi eraikuntzen parean zen eta da: Justizia Jauregia alde batetik, eta Arana Goiritar anaiak sortu ziren etxea bertetik. Bi eraikuntza horien erdian sorturik, ene bizia jada marraztua zela behin baino gehiagotan errana izan didate, batez ere ene abokatu kideek, txantxetan!

Gure Xendrako etxetik hurbil zen Tomas Zumalakarregi jenerala belaunean zauritu zutelarik, Bilboko lehen sektion, 1835ean. Obusak gure etxe gainetik pasatzen omen